



**2008.** urtea Hizkuntzen Nazioarteko Urtea izendatu du NBEk, munduan dauden hizkuntzak babesteko eta gordetzeko beharra azpimarratzearen. Kataluniako unibertsitateok horretan lagundu nahi dugu, eta horretarako hizkuntz aniztasunaren iraunkortasunak duen garrantzia zabaldu nahi dugu unibertsitateko kideen artean.

Munduan 4.000 eta 6.000 hizkuntza artean hitz egiten dira, eta horien % 96 munduko biztanleen % 4ek bakarrik hitz egiten dituzte. Kalkulu baikorrenen arabera, datozen ehun urteotan hizkuntza horien % 50 galduko dira.

Hiztun kopurua faktore garrantzitsua izaten da, baina ez ezinbestean hizkuntza baten osasunaren adierazle onena. Hizkuntzen bizitasuna segurtatzeko behar diren baldintzak konplexuak izaten dira. Erakundeen laguntza, hizkuntzak herrialde bakoitzeko esparru ekonomikoan duen erabilera eta hedabide globaletan duen erabilpena dira baldintza horietako batzuk, hiztunek beren hizkuntzarekin duten leialtasunarekin eta nortasun-ikur gisa hartzearekin batera.

**Hizkuntzen iraunkortasuna bultzatzen** duten ikasleek pertsonak baloratzen dituzte eta, hori dela eta, ez dute beste hizkuntzarik beren hizkuntzaren azpian egoterik espero. Aniztasuna baloratzen dute, pertsona libreak izanik askatasuna norbera denari uko ez egitea dela dakitelako. Jakintza baloratzen dute, libreago eta gizatiarrago egiten dituelako jakintzak. Hizkuntzen iraunkortasuna bultzatzen duten ikasleak kontsekuenteak dira eta, horregatik, pertsonen, aniztasunaren eta jakintzaren aldeko jarrera izaten dute hizkuntzekin.

# HIZKUNTZEN IRAUNKORTASUNA BULTZATU

## HIZKUNTZA GUZTIAK ERRESPETATU

Hizkuntzaren bat gustatzen ez zaizula edo erabilgarria edo garrantzitsua ez dela esaten duzunean, aurreiritzi horiek hizkuntza horietako hitzunei ere zuzentzen dizkiezu, konturatu gabe. Hizkuntza guztiak berdinak dira eta desberdinak, aldi berean.

## ENTZUN ETA BEGIRATU: INGURUAN DITUZUN HIZKUNTZEKIKO INTERESA ERAKUTSI

Askotan, susmorik ere ez zenuen hizkuntzak hitz egiten dira zure inguruan. Eta askotan haien izena zein den ere ez dakizu. Batzuetan hizkuntza horien izena edo hizkuntza horietako hitzen bat edo beste jakitea aski da zure ingurukoak gogoko dituzula eta zeharo desberdinak iruditzen ez zaizkizula adierazteko. Esaiezu eskerrik asko beren hizkuntzan eta irribarre batekin erantzungo dizute.

## EZ BELDURRIK IZAN HIZKUNTZA BERRIAK IKASTEKO, LAGUNGARRIAK IZANGO BAITZAIZKIZU BETI

Jende askoren ustez hizkuntza bat badakizu edo ez dakizu, baina ez dago tarteko aukerarik. Era berean, hizkuntza bat buruan sartzeko, aurretik beste batek burutik atera beharra dagoela uste dute askok. Hizkuntza bat pixkana-pixkana hitz egiten ikasteak ez du esan nahi aurreko hizkuntzak ahaztu behar direnik, edo beste hizkuntzak okerrago hitz egiten bukatuko dugunik. Hitz bakar bat erabilgarria izan dakiguke, eta iristen garen mailara iritsita ere, pixka bat hobe da ezer ez baino. Beti irabazten da zerbait.

## HIZKUNTZEK IKUSPEGI BERRIAK ESKAINTZEN DIZKIGUTE: EZ BAZTERTU HIZKUNTZEK ESKAINTZEN DITUZTEN JAKINTZA-ITURRIAK

Hizkuntza guztiak dute jakintza beren baitan eta jakintza berriak sortzen dituzte. Ez mugatu ingelesa ikastera. Ezagutu ezazu gertuko hizkuntzetan idatzita

dagoena. Beste hizkuntzetan zuk uste baino askoz gehiago irakurri dezakezula eta ulertzen duzula ikusiko duzu askotan, bai eta ideia onak hizkuntza jakin bati lotuta ez daudela eta hizkuntza guztiak ideia onak dituztela ere. Hizkuntza bakoitzak ikuspegi berezia ematen digu errealitateari buruz. Hizkuntzak ikastea lagungarria izango zaizu zure ikuspegia zabaltzen.

## HITZ EGITEKO AUKERA EMAN GUTXIENGOEI ETA ENTZUIEZU

Gutxiengo guztion artean gehiengoa osatzen dugu. Ez areagotu hizkuntzen arteko desoreka, ez tratatu hitzun gutxiko hizkuntzak ez tratatzea nahiko ez zenukeen moduan. Aukeratu ahal izatekotan, eman lehentasuna bozgorailurik gutxien dituztenei. Lagunduiezu leku guztietara iristen eta haiek ere lagunduko dizute zuri.

## EZ HIZKUNTZA NAGUSIRIK INOSATU, ETA ARRISKUAN DAUDEN HIZKUNTZAK INDARTZEN LAGUNDU

Ipar Kataluniako Joan Lluís Lluís idazleak dioenez, Hegoaldeko katalan askori Katalunia frantsesera joatea gustatzen zaie, frantsesez zein ondo hitz egiten duten erakusteko. Ez hizkuntza handiak zabaldu bakarrik, hitzun gutxiago dituzten hizkuntzen kaltetan. Interesa erakutsi galzorian dauden hizkuntzekin ere: ikusiko duzu hizkuntza horiek ere erabilgarriak eta beharrezkoak direla, eta hizkuntz esparrua biziberritzen lagunduko duzu horrela.

## MERKATU TXIKI BAT ATE HANDIA IZAN DAITEKE

Ez itzazu hartzaille potentzialak eta benetako hartzailleak nahastu. Hitzun askoko hizkuntza batean idazten edo hitz egiten jakiteak ez ditu entzungo zaituztenik segurtatzen. Gertu dauzkagunak bezala hitz egitea, berriz, esateko duguna entzunarazteko

bidea da. Garrantzitsuena ez da zenbat pertsonak ulertu gaitzaketen, benetan zerbait zeini esaten diozun baizik. Shakespeare-ek idazten zuen garaian, ingeles-hiztunak sei milioi baino gutxiago ziren.

## HIZKUNTZ ANIZTASUNA JORRATU MUNDUAN BARRENA ZABILTZANEAN

Adi entzunez gero munduak eskaintzen dizun aberastasun eta aniztasun guztia aprobetxatu. Ez zaitetz Galesera edo Maltara ingelesa ikastera joan bakarrik. Saiatu zaitetz bisitatzen dituzun lekuetako hizkuntzak hitz egiten: zure solaskideak zu haien hizkuntzan hitz egitea zenbat eta gutxiago espero, orduan eta gehiago poztuko dira.

## GORDE ZURE ASKATASUN-ESPARRUTXOA: EZIN DIZUTE HIZKUNTZARIK KENDU, ZUK NAHI EZ BADUZU

Hizkuntzak ez dira gauzak, ez diote elkarri enbarazu egiten: ez sinetsi besterik dioenik. Bizitzan zehar ezin izango duzu beti ikasi zenuen lehen hizkuntzan hitz egin, baina hizkuntza hori ez galtzea daukazu: beste hizkuntza batzuk ikasten lagunduko ditu. Ez ezazu galdu, beraz: zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, orduan eta gehiago jakingo duzu zure hizkuntzari eta munduari buruz.

## EZ BESTE HIZKUNTZATAKO HIZTUNIK BAZTERTU

Hizkuntzek, gutxi hitz egiten diren edo hedadura gutxi duten hizkuntzek bereziki, lotura ikusezinak sortzen dituzte, eta ezezagunak bizilagun bihurtzen dituzten ongietorri-ikurrak dira. Ez beste inori galarazi bere hizkuntza ikastea edo erabiltzea. Ez zure hizkuntzaren bidez zuretarrak ez direnik esan. Katalunian, adibidez, eskatu beti katalanez ere hitz egitea, ez zaitetz kanpoan gelditu. Katalana baliorik gabe gelditzen ez den pasaporte da: behin eskuratuz gero betiko iraungo ditu.

ένα · δύο · τρία · τέσσερα · πέντε

Contingut elaborat per:

GELA | Grup d'Estudi de Llengües Amenaçades

Un projecte dels serveis lingüístics universitaris de:

**UAB**  
Universitat Autònoma de Barcelona

 UNIVERSITAT DE BARCELONA

 **UdG**  
Universitat de Girona

  
Universitat de Lleida

 UNIVERSITAT POLITÈCNICA DE CATALUNYA

 UNIVERSITAT PÒMPEU FABRA

  
UNIVERSITAT DE VIC

Hi col·labora:

 Generalitat de Catalunya  
Departament d'Innovació,  
Universitats i Empresa

yun · sin · šrađ · rb`a · hemsā · se